

## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

Ordizian, **2023ko otsailaren 23a** *En Ordizia siendo el día 23 de febrero de 2023 se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*  
UDALBATZARRAK **Ohiko bilkura** egin du *esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*  
udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona *esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:*  
hemen bertaratuak:

### LEHENDAKARIA:

Adur Ezenarro Agirre jn.

### BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Maitane Alvarez Garciandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jon Ander Caballero Zubelzu	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Ainhoa Jimenez Goñi	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Jesus M.Lariz Orbezabal	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Itsaso Muñoz Rodriguez	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Lander Mujika Onandia	EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)
Arantxa Arocena Gomez	EAJ-PNV
Xabier Crespo Ibarrolaburu	EAJ-PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ-PNV
Agurtzane Antoñana Arizmendi	EAJ-PNV
Miren Alazne Sukia Galparsoro	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)
Iñaki Dubreuil Churruca	PSE-EE (PSOE)

### IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:


Joseba Aranburu Ganzarain	EAJ-PNV
Jose Miguel Santamaría Ezeiza	EAJ-PNV
Juan Ignacio Alonso Arratibel	ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak)

### IDAZKARIA:

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

### BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK:

- Udal langileen ordezkari bat bertaratu da bilkurara
- Etxez etxeko zerbitzuko langileak bertaratu dira bilkurara.



**Ordiziako Udala**

2023IOSB0002

## **AZTERTUTAKO GAIAK:**

### **EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:**

- 1.- 2023ko urtarrilaren 26ko udalbatzarrak egindako batzarraren akta zirriborroa onartzea.
  - 2.- 2023. ekitaldian enplegatu publikoen soldata iguera onartzeko proposamena.
  - 3.- 2023ko 5. ordenantza Fiskalaren I. eranskinaren aldaketak onartzeko proposamena.
  - 4.- 2023ko martxoaren 8rako Adierazpen instituzionala.
  - 5.- Aniztasun Kulturalaren aldeko adierazpen instituzionala.
  - 6.- TURKIAN eta SIRIAN gertatutako lurrikarak kaltetutako herriei babesa emateko EAJ/PNVk aurkeztutako adierazpena.
  - 7.- Kontu-hartzailearen ingerak. Expedienteak: 2023KERR0003, 2023KERR0004, 2023KERR0005, 2023KERR0006, 2023KERR0007.
  - 8.- Urtarrilean zehar sinatutako Alkatezako dekretuen berri ematea. (2022:1485-1617)(2023:0002-0128)
  - 9.- Galde-erreguak.
- 1.- *Aprobación del borrador del Acta de la sesión de Pleno celebrada el 26 de enero de 2023.*
  - 2.- *Propuesta de aprobación de la subida salarial de los empleados públicos en el ejercicio 2023.*
  - 3.- *Propuesta de aprobación de las modificaciones del Anexo I de la Ordenanza Fiscal nº 5 de 2023*
  - 4.- *Declaración institucional con motivo del 8 de marzo de 2023.*
  - 5.- *Declaración institucional a favor de la Diversidad Cultural.*
  - 6.- *Declaración presentada por EAJ/PNV de apoyo a las poblaciones afectadas por el terremoto acaecido en TUQUIA Y SIRIA.*
  - 7.- *Reparos de la interventora relativos a los expedientes: 2023KERR0003, 2023KERR0004, 2023KERR0005, 2023KERR0006, 2023KERR0007*
  - 8.- *Dación de cuenta de los decretos de alcaldía firmados en el mes de Enero. (2022:1485-1617)(2023:0002-0128)*
  - 9.- *Ruegos y preguntas.*

### **PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**


### **GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

### **GORABEHERAK:**

### **ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 18:00etan.**

**AMAIERA: 18:46etan.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

*Abierta la sesión por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.*

**1.- 2023ko urtarrilaren 26ako ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.**

**1.- Aprobación del borrador del acta de la sesión ordinaria de fecha 26 de enero de 2023**

Proposamena

Propuesta

**2023ko urtarrilaren 26ko ohiko Osoko Batzarrako akta zirriborroa onartzea.**

***Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 26 de enero de 2023***

Eztabaida

Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: no se han producido*

Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak:** 13 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2023. ekitaldian enplegatu publikoen soldata igoera onartzeko proposamena.**


**2.- Propuesta de aprobación de la subida salarial de los empleados públicos en el ejercicio 2023.**

Proposamena

Propuesta

2022/12/24n, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu zen BOEn.

*El 24/12/2022 se publicó en el BOE la Ley 31/2022, de 23 de diciembre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2023.*



Lege horrek **III. tituluko I. kapituluko 19. artikuluan** arautzen ditu jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzuko langileen gastuei dagokienez.

**19. artikulua. Bi. 1.** 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariekin ezin izango dute ehuneko 2,5etik gorako igoera orokorrik izan, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, alderatutako bi aldiak homogeneoak izanik, bai langile-kopuruari bai antzintasunari dagokienez.

Hori guztia ikusita, honako erabaki hau hartzea proposatzen da:

### AKORDIO PROIEKTUA

**LEHENA.-** 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 2,5eko soldata-igoera onartzea, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko.

**BIGARRENA.-** Akordio hau aplikagarria izango zaie udaleko langileei eta udalaren erakunde autonomoetako eta elkarte publikoetako langileei.

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

David Gil (Ordiziako Udaleko LAB sindikatuko ordezkariak) hitza eskatzen du, eta hau adierazten du: konpromezua hartzea eskatzen dio Alkateari gutxienez hurrengo astean bilera bat egingo dela soldaten igoerari buruz hitzegiteko.

Alkatea adierazten du %2,5eko igoera aplikatu dela, legez hori baita aplikatu

*La referida Ley, regula en el artículo 19 del Capítulo I, Título III las bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en materia de gastos de personal al servicio del sector público.*

**Artículo 19. Dos. 1.** *En el año 2023, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 2,5 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*

*A la vista de todo ello se propone la adopción del siguiente*

### PROYECTO DE ACUERDO

**PRIMERO.-** *Aprobar con efectos de 1 de enero de 2023 una subida salarial del 2,5% respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2022.*


**SEGUNDO.-** *El presente acuerdo será de aplicación a los empleados públicos del Ayuntamiento así como al personal de sus organismos autónomos y sociedades públicas.*

### Debate

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

David Gil (representante del sindicato LAB en el Ayuntamiento de Ordizia) pide la palabra y solicita al Alcalde que se comprometa al menos, a que la próxima semana se reúnan para hablar de la subida salarial.

El Alcalde señala que se ha aplicado un incremento del 2,5%, que es el máximo



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

daitekeen gehiengoa. Bestalde, ez duela inolako arazorik langileen ordezkariekin biltzeko, inoiz ez dutela izan, eta oraingoan ere ez dela arazorik. Bai eskatu nahi die langileen ordezkarietara proposamenak aurkeztea, hau da, aurrez ere proposamenak egiteko eskaera egin izan dute, eta ez da inongo proposamenik egin. Hori dela eta, legeak uzten duen maximoa aplikatuko da oraingoan ere.

*legal aplicable. Por otra parte, le responde que no tiene ningún problema en reunirse con los representantes de los trabajadores, que nunca lo ha tenido, y que esta vez tampoco lo tiene. Si quiere pedir a los representantes de los trabajadores que presenten propuestas, es decir, que ya les han solicitado propuestas con anterioridad y no se ha presentado ninguna. Por esto, en esta ocasión también se vuelve a aplicar el máximo legal.*

### Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak:** 13 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

### **3.- 2023ko 5. ordenantza Fiskalaren I. eranskinaren aldaketak onartzea**

### **3.- 2023ko 5. ordenantza Fiskalaren I. eranskinaren aldaketak onartzea**

#### **Proposamena**

#### **Propuesta**

2022ko urriaren 13ko Osoko Bilkuran erabaki zen Ordiziako Udaleko 2023ko Ordenantza fiskalak behin behinekoz onartzea.


*En Pleno de 13 de octubre de 2022 se acordó la aprobación provisional de las Ordenanzas fiscales del Ayuntamiento de Ordizia de 2023.*

Ordenantza Fiskalen aldaketa proposamena 30 eguneko epean Gipuzkoako aldiakari ofizialean argitaratuta egon ondoren, erreklamaziorik edo aldaketarik aurkeztu ez zenez, aipatu Ordenantza Fiskalak behin betikoz onartutzat jo ziren.

*Una vez publicada la propuesta de modificación de las Ordenanzas Fiscales en el Boletín Oficial de Gipuzkoa en el plazo de 30 días, y no habiéndose presentado ninguna reclamación o modificación, se dieron por aprobadas definitivamente las citadas Ordenanzas Fiscales.*

16/1989 Foru Arauak, uztailaren 5ekoak, Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren

*La Norma Foral 16/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre el Incremento del Valor de*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

gaineko Zergari buruzkoak, 2021eko azaroaren 16ko 7/2021 Foru Dekretuak eginiko aldaketari jarraiki, 4.3 artikuluan azaltzen du Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren zerga oinarria kalkulatzeko momentuan “Sortzapenaren unean lurra duen balioari ... udalak onartzen duen koefizientea aplikatuko zaio balio gehikuntzaren sorreraldia kontuan hartuta”.

Foru Arauak Gehieneko koefizienteak aurreikusten ditu, eta, era berean, ondorengoa adierazten du “Gehieneko koefiziente horiek urtero eguneratuko dira foru arau bidez, eta eguneratze hori Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontu orokorren foru arauetan ere egin ahal izango da.

Aurreko paragrafoan aipatutako eguneratzeak berekin badakar ordenantza fiskalean onartutako koefizienteetako bat legez ezarritako gehieneko berria baino handiagoa izatea, azken hori zuzenean aplikatuko da, soberakina zuzentzen duen ordenantza fiskal berria indarrean jarri arte.

Hori horrela, 6/2022 Foru Arauak, abenduaren 23koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023. urterako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituenak, aipaturiko koefizienteetako batzuk gutxiagotu ditu eta besteak gehitu.

### **PROPOSATZEN dut:**

**Lehenengoa.-** Hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen, 5. Ordenantza fiskalaren 1. Eranskinaren aldaketa, hasierako izaeraz onartzea.

*los Terrenos de Naturaleza Urbana, en virtud de la modificación operada por el Decreto Foral 7/2021, de 16 de noviembre, señala en su artículo 4.3 que en el momento del cálculo de la base imponible del Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana, se aplicará al valor del terreno en el momento del devengo el coeficiente que apruebe el Ayuntamiento en función del período de devengo del incremento de valor.*


*La Norma Foral prevé los Coeficientes Máximos aplicables, señalando asimismo que dichos coeficientes máximos se actualizarán anualmente por Norma Foral, sin perjuicio de que dicha actualización se realice en las Normas Forales de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*Asimismo se establece que si la actualización a que se refiere el párrafo anterior implicase que alguno de los coeficientes admitidos en la ordenanza fiscal sea superior al nuevo máximo legalmente establecido, este último se aplicará directamente hasta la entrada en vigor de la nueva ordenanza fiscal que corrija el excedente.*

*Así, la Norma Foral 6/2022, de 23 de diciembre, por la que se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el ejercicio 2023, ha minorado algunos de los citados coeficientes e incrementado otros.*

### **PROPONGO:**

**Primero.-** Aprobar de forma inicial la modificación del Anexo I de la Ordenanza fiscal nº 5 reguladora del impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana.




## I. ERANSKINA / ANEXO I

<u>Sorreraldia / Período de Generación</u>	<u>Koefizientea / Coeficiente</u>	<u>2023ko urtarrilaren 1etik aurrera erabiliko diren Koefizienteak / Coeficiente a utilizar a partir del 1 de enero de 2023</u>	<u>Karga tipoa / Tipo de Gravamen</u>
Urte betetik behera / Inferior a 1 año	0,1400	0,1500	%15
Urte bat / Un año	0,1300	0,1500	%15
2 urte / 2 años	0,1500	0,1400	%15
3 urte / 3 años	0,1600	0,1500	%15
4 urte / 4 años	0,1700	0,1700	%15
5 urte / 5 años	0,1700	0,1800	%15
6 urte / 6 años	0,1600	0,1900	%15
7 urte / 7 años	0,1200	0,1800	%15
8 urte / 8 años	0,1000	0,1500	%15
9 urte / 9 años	0,0900	0,1200	%15
10 urte / 10 años	0,0800	0,1000	%15
11 urte / 11 años	0,0800	0,0900	%15
12 urte / 12 años	0,0800	0,0900	%15
13 urte / 13 años	0,0800	0,0900	%15
14 urte / 14 años	0,1000	0,0900	%15
15 urte / 15 años	0,1200	0,1000	%15
16 urte / 16 años	0,1600	0,1300	%15
17 urte / 17 años	0,2000	0,1700	%15
18 urte / 18 años	0,2600	0,2300	%15
19 urte / 19 años	0,3600	0,2900	%12
20 urte edo gehiago / Igual o superior a 20 años	0,4500	0,4500	%11

**Bigarrena.-** Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar egun balioduneko epealdian, alegazio eta erreklamazio ondorioetarako.

**Segundo.-** Someter el acuerdo a información pública por un periodo de treinta días hábiles a efectos de alegaciones y reclamaciones.



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

**Hirugarrena.-** Jendaurreko erakustaldi epealdian inolako alegazio edo erreklamaziorik ez badago, akordioa behin betikoz onartutzat joko da, berariazko akordio berri baten beharrik gabe.

**Tercero.-** Si durante el período de exposición al público no hubiera alegaciones o reclamaciones, el acuerdo se entenderá adoptado con carácter definitivo, sin necesidad de nuevo acuerdo expreso.

**Laugarrena.-** Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratzen hori burutua izan ez den artean.

**Cuarto.-** Los acuerdos definitivos a los que se refiere el apartado anterior, incluyendo los provisionales elevados automáticamente a tal categoría y el texto íntegro de las ordenanzas o de sus modificaciones, habrán de ser publicados en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, sin que entren en vigor hasta que se haya llevado a cabo dicha publicación.

### Eztabaida

### Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: no se han producido*

### Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak:** 13 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4.- 2023ko martxoaren 8rako Adierazpen instituzionala.**


**4.- Declaración institucional con motivo del 8 de marzo de 2023.**

### Proposamena

### Propuesta

25 urte baino gehiago igaro dira, Beijineko Adierazpenean eta Ekintza Plataforman, erabakiak hartzerako orduan, gizonen eta

*Han pasado más de 25 años desde que se adoptó el acuerdo internacional de lograr la participación política y distribución*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

emakumeen artean parte-hartze politikoa eta boterearen banaketa orekatua lortzeko nazioarteko akordioa hartu zenetik. Nahiz eta aurrerakuntzak izan diren, munduko herrialde gehienek ez dute genero berdintasunik lortu, eta gutxi batzuk bakarrik ezarri edo bete dituzte sexuen arteko berdintasunean asmo handiko helburuak.

*equilibrada del poder entre hombres y mujeres en la toma de decisiones en la Declaración y Plataforma de Acción de Beijing. A pesar de los avances, la mayoría de los países del mundo no ha logrado la igualdad de género, y son pocos los que han establecido o cumplido metas ambiciosas respecto de la paridad entre los sexos.*

Egungo krisi anitzen testuinguru honetan, gizarte, ekonomia, ingurumen eta gobernantza ereduak birplanteatu nahi dira, berdintasun-arrakalak gutxitzeko asmoarekin, arrakala horiek gizartearen zati handi batentzat handitu direlako eta, batez ere, emakumeentzat. Orain da liderrak lizateko garaia, erakundeak eta gizartea eraldatzeko harreman-eredu askoz ere inklusiboagoak, kooperatiboagoak eta sortzaileagoak lortzeko. Sektore anitzeko lankidetzako gobernantza feministaren eredu baterantz aurrera egin behar da, elkar entzutean oinarrituz, baita botere eta erantzukizunen banaketa eta partaidetza-prozesuak abian jartzean ere.


*En el contexto actual de crisis múltiples se busca replantear los modelos social, económico, medioambiental y de gobernanza a fin de reducir las brechas de desigualdad, que han aumentado para gran parte de la humanidad y, principalmente, para las mujeres. Es el tiempo de liderar para transformar las organizaciones y la sociedad hacia modelos de relación mucho más inclusivos, cooperativos y creativos. Se necesita avanzar hacia un modelo de gobernanza feminista de colaboración multisectorial; basada tanto en la escucha como en la puesta en marcha de procesos de la participación y distribución de poderes y responsabilidades.*

Mugimendu eta talde feministak eta emakumeenak, aniztasunean eta belaunaldien artean, berdintasunaren inguruko hainbat gai salatzeko eta eskatzeko mobilizatzen ari dira. Adibidez, arrazakeriaren kontrako justiziatik hasi eta soldata-berdintasuneraino, indarkeriaren amaiera eta emakumeen aurkako diskriminazioa, sexu-jazarpenaren ezabatzea, klimaren aldeko justizia, bakea mantentzea, eta hainbat gehiago.

*Las organizaciones feministas y de mujeres en su diversidad y entre generaciones, vienen movilizándose para denunciar y reclamar una serie de cuestiones de igualdad: desde la Justicia racial hasta la igualdad salarial, el fin a la violencia y la discriminación contra las mujeres, la eliminación del acoso sexual, la justicia climática, el mantenimiento de la paz y más.*

Emakumeek politikan eta erabakiak hartzerakoan berdintasunean parte hartzea eta lidergoa izatea funtsezkoak dira, 2030an, Garapen Jasangarriaren Helburuak lortzeko. Hala ere, tokiko eremutik orokorrera, emakumeen parte-hartzea mugatua izaten jarraitzen du,

*La participación y liderazgo de las mujeres en la política y en todos los ámbitos de decisión en pie de igualdad son fundamentales para alcanzar los Objetivos de Desarrollo Sostenible en 2030. Sin embargo, desde el ámbito local hasta el global, la participación de las mujeres en la*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

alderdi formaletako erabakiak hartzerakoan, bestea beste, politika gaitan, administrazio publikoan, enpresa pribatuetan, unibertsitatean, sindikatuetan, elkarre eta kooperatibetan, eta beste hainbat sektoretan.

Martxoak 8 honetan, emakumeen nazioarteko egunean, lehentasunezkoa da emakumeen lidergoak sustatzea, gobernantza feministaren eta lidergo partekatuen eredu batetik abiatuta. Era berean, berdintasun arloan erabakiak hartzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeko baldintzak sortzearen alde lan egin behar da. Emakumeen parte-hartzea ikuspegi askoz ere zabalago batetik ulertu behar da, ez bakarrik ikuspegi formal edo arauemaitetik. Emakumeek erabakiguneetan parte hartzeko dituzten baldintzak aldatu behar ditugu.

Emakumeen parte-hartzearen alde lan egiteko, beharrezkoa da...


- Botere-espazioak partekatzea eta uzteak eragozten dituzten **erresistentziei eta inertziei** aurre egitea. Horretarako, kristalezko sabaik hautsi behar dira, espazio guztietan, aniztasun osoan eta ikuspegi intersektionalarekin emakumeen presentzia bermatuko duten neurriak ezarriz.
- Zaintza-lanen banaketa erantzunkidean aurrera guztiz egitea, justizia-printzipioa delako eta emakumeen gainkargak herritartasun osoa egikaritzea mugatzen duelako.
- zaintza eta bestelako lan feminizatuen sektore profesionala prekarizatuak balioestea, eta sektore horri gizarte-balioa aitortzea, bere baldintzak hobetuz.
- emakumeek lidergoetan duten

*toma de decisiones en las esferas formales sigue siendo limitado, ya sea en la política, la administración pública, empresas privadas, universidad, sindicatos, asociaciones y cooperativas y otros sectores.*

*Este 8 de marzo, día internacional de las mujeres, es prioritario impulsar los liderazgos de las mujeres desde un modelo de gobernanza feminista y liderazgo compartido. Trabajar por generar las condiciones para aumentar la participación de las mujeres en la toma de decisiones en igualdad. Hay que entender la participación de las mujeres desde una perspectiva mucho más amplia, no solo la formal o normativa, sino que tenemos que cambiar las condiciones en las que las mujeres puedan participar de los espacios de decisión.*

*Para trabajar por la participación de las mujeres es necesario...*

- **combatir las resistencias e inercias** que impiden compartir y ceder espacios de poder, rompiendo los techos de cristal con medidas que garanticen la presencia de las mujeres en todos los espacios, en toda su diversidad y con perspectiva interseccional;
- **avanzar radicalmente en una distribución corresponsable de las tareas de cuidado**, porque es un principio de justicia y porque la sobrecarga de las mujeres limita su ejercicio pleno de la ciudadanía;
- **poner en valor el sector profesional de los cuidados precarizados y otros trabajos feminizados**, y reconocer su valor social, mejorando sus condiciones;
- **combatir los estereotipos y**



konfiantza, sinesgarritasuna eta eragina mugatzen duten **estereotipo eta aurreiritziei** aurre egitea.

- Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztiak desagerraraztea, baita emakumeen aurkako indarkeria politikoa ere.
- **Lidergoan jarduteko praktikak eta moduak deseraikitea**, besteak beste, menderatzean oinarritutako eredu androzentrikoak, zaintzaren denborak eta erantzukizuna kontuan hartu gabe, emakumeen eta boteretik baztertutako beste kolektibo batzuen talentua eta jakintzak mesprezatuz, eta talde-lana ez baloratzuz.
- Emakumeen eta nesken eskubideak ikuspegi interseksionala, berritua, erradikala eta eraldatzailea duen agenda feministaren ergunean jartzea, emakume horiek boterean duten bazterketa sistematikoari aurre egiteko eta desberdintasun-arrakalak murrizteko.

**prejuicios** que limitan la confianza, credibilidad e Influencia de las mujeres en el ejercicio de los liderazgos;


- **erradicar todas las formas de violencia hacia las mujeres**, incluidas la violencia política contra las mujeres;
- **deconstruir las prácticas y formas de ejercicio de liderazgo** desde modelos androcéntricos basados en la dominación; desconsiderando los tiempos y la responsabilidad del cuidado; que desprecian el talento y saberes de las mujeres y otros colectivos excluidos del poder; y sin valorar el trabajo colectivo;
- **colocar los derechos de las mujeres y las niñas en el centro de una agenda feminista con enfoque interseccional, renovada, radical y transformadora**, para combatir la sistemática exclusión de estas en el poder y reducir las brechas de desigualdad.

Horregatik, euskal udalerrriok, gure eskumenen markoan, konpromiso hauek hartzen ditugu: emakumeen lidergoa bultzatzea eta boterea berdintasunean egikaritzeko baldintzak erraztea. Estamentu publiko eta probatu guztietan emakumeen ahalduntzea eta parte-hartzea sustatzen duten politikak indartzea da helburua, martxoaren 3ko 1/2022 Legean, Emakume eta Gizonen berdintasunerako legearen bigarren aldaketari buruzkoan, ezarritakoaren arabera:

1.- Emakumeen Etxeak sortzeko prozesu parte-hartzaileekin hastea, udalerrri bakoitzaren beharretara egokituta.

*Por eso los Ayuntamientos Vascos, en el marco de nuestras competencias nos comprometemos a impulsar el liderazgo de las mujeres y a favorecer las condiciones para el ejercicio del poder en igualdad. Se trata de fortalecer las políticas que promuevan el empoderamiento y participación de las mujeres en todos los estamentos públicos y privados según lo establecido en la Ley 1/2022, de 3 de marzo, de segunda modificación de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres:*

1. *Iniciar procesos participativos para la creación de Casas de Mujeres, adaptados a las necesidades de cada municipio.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002


- |  |   |
|--|---|
| <p>2.- Ahalduntze programak eta eskolak baliabide eta leku egokiez hornitzea.</p> <p>3.- Mugimendu feministaren eta emakume-elkarteen parte-hartzea indartzea, emakumeen/berdintasunaren tokiko kontseiluetan, erabaki partekatuak hartzeko konpromiso sendo batetik abiatuta.</p> <p>4.- Berdintasun-planen interseksionalitatea indartzea gure gizartea osatzen duten eremu guztietan, emakumeek beraien aniztasunean duten parte-hartze osoa eta eraginkorra finkatzera iristeko.</p> <p>5.- Adinaren eta generoaren arabera bereizitako datuak sortzea, 1/2022 Legearen aginduak dakarrena kontuan hartuz, neskatilen, neska nerabeen eta emakumeen bizitzetan eragin zuzena izango duten politikak egiteko informazioa emateko.</p> <p>6.- Politikan sartzen diren emakumeentzako ikaskuntza-eta ahalduntze-guneak antolatzea, emakume hautetsien arteko laguntza-, elkartasun-eta aliantza- sareen bidez, adibidez, Basqueskola Sarea, edo beste sare batzuk.</p> <p>7.- EUDEleri eskatzea, indarkeria politikoari aurre egiteko protokoloak proposa ditzala, emakumeen parte hartzeari eta erabakitzeko gaitasunari buruzko ikerketa bultzatzea eta ordezkaritza orekatu baterantz egiten diren aurrerapenak babes ditzala.</p> | <p>2. <i>Dotar los programas y las escuelas de empoderamiento de recursos y espacios adecuados.</i></p> <p>3. <i>Fortalecer la participación del movimiento feminista y las diferentes asociaciones de mujeres en los Consejos locales de mujeres/igualdad un firme compromiso de toma de decisiones compartidas.</i></p> <p>4. <i>Reforzar la interseccionalidad de los planes de igualdad en todos los ámbitos que conforman nuestra sociedad para llegar a consolidar la participación plena y efectiva de las mujeres en su diversidad.</i></p> <p>5. <i>Generar datos desagregados por edad y género para aportar información a la elaboración de políticas que tengan un impacto directo en las vidas de las niñas, adolescentes y mujeres según el mandato de la ley 1/2022.</i></p> <p>6. <i>Articular espacios de aprendizaje y empoderamiento para las mujeres que acceden a la política, mediante redes de apoyo, solidaridad y alianza entre mujeres electas, como Basqueskola Sarea y otras.</i></p> <p>7. <i>Instar a que EUDEL proponga protocolos para hacer frente a la violencia política que impulse la investigación sobre la participación de las mujeres y sobre la capacidad de decisión y apoye los avances hacia una representación equilibrada.</i></p> |
|--|---|

### Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan

### Debate

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: no se han producido*



Eztabaida

Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

Ainhoa Jimenez zinegotziak adierazpena irakurtzen du. Adierazten du lan handia dagoela egiteke genero berdintasunaren inguruan, baina eskertzekoa dela mugimendu feministak egin duten lana.

*La concejala Ainhoa Jiménez lee la declaración. Señala que queda mucho trabajo por hacer en torno a la igualdad de género, pero que es de agradecer el trabajo que han realizado los movimientos feministas.*

Bozketa:


Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak:** 13 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Aniztasun kulturalaren aldeko adierazpen instituzionala.**

**5.- Declaración institucional a favor de la diversidad cultural.**

Proposamena


Propuesta

(Martxoak 21. Arrazismoaren Aurkako Mundu Eguna / Maiatzak 21. Aniztasun Kulturalaren Mundu Eguna)  
ORDIZIAKO UDALA, 2023

21 de marzo. Día Internacional de la Eliminación de la Discriminación Racial  
ORDIZIAKO UDALA, 2023

Immigrazioa gertakari estrukturala da. Erbestea etengabeko konstantea izan da gizartearen historian, baita gurean ere: gu ere erbeste izan ginen. Eta gaur babes izatea dagokigu. Ordizia garai ezberdinetan jasotako migrazio ezberdinen emaitza da, ezin dugu gure

*La inmigración es un hecho estructural. El exilio ha sido una constante en la historia de la humanidad y ha estado presente en la nuestra: también fuimos exilio. Y hoy nos corresponde ser refugio. Ordizia es el resultado de las diferentes migraciones recibidas en diferentes épocas. No podemos entender nuestro pueblo sin los y las vecinos/as que vinieron de distintos lugares*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

herria ulertu joan den mendean estatu espainiarreko leku ezberdinetatik etorri ziren bizilagunek zein gaur egunean, munduko txoko ezberdinetatik etorritakoek egindako ekarpenik gabe, beraiei esker gera garena, herri aurreratu eta aberats bat.

Ikuspegik, Immigrazioaren Euskal Behatokiak emandako datuen arabera, 2022an, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen %11,5 Europar Batasunean edo munduko beste lurraldeetan jaiok dira. Ordiziako kasuan, berriz %18,5. Eta dauzkagun zantzu eta ebidentziek adierazten digute datozen urteetan ere immigrazioa jasotzen jarraituko dugula, aurreko urteetan gertatu den bezalaxe, baita immigraziorako hain kaltegarriak izan diren testuinguruetan ere -hala nola 2008ko krisi ekonomiko handia eta 2020-21eko osasun krisi larria.

Beraz, immigrazioa ez da aldi baterako fenomeno soziala edo fenomeno koiunturala, gure herri eta hirietako errealitate estrukturala baizik.

Jatorria munduko toki ezberdinetan duten pertsonen immigrazioak areagotu egin du gure gizarteak lehendik zuen ezaugarri bat: aniztasuna. Gaur egun, gure gizarteak XXI. mendearen hasierakoak baino kultura-aniztasun handiagoa du. Horregatik, herriak eta hiriak dira aniztasun hori guztia kudeatzeko giltza dutenak, bertako herritarrekin eta herritarrentzat, tokian tokiko berrikuntzaren eta gobernantza onaren estrategiak proiektatzeko gaitasuna dutelako.

Gure ustez, dibertsifikazio eta aniztasunari esker, gehiago indartzen dira tokian tokiko identitateak, eta sentitzeko eta egiteko beste modu batzuk ezagutu daitezke, baita horiekin ikasi ere. Beste kultura batzuetara hurbiltzeak mundu ikuskerak sustatzen ditu, bai pertsonalki bai sozialki aberasten gaitu eta beste ideia batzuk sortzeko aukera ematen du. Aldi berean, aniztasun


*del estado español en el siglo pasado o como los que hoy vienen de diferentes rincones del mundo, ya que con las aportaciones de todas esas personas somos un pueblo avanzado y rico.*

*Según datos del Observatorio Vasco de Inmigración, Ikuspegi, en 2022, el 11,5% de la población de la C.A. de Euskadi ha nacido en la Unión Europea o en otros territorios del mundo. En el caso de Ordizia, el 18,5%. Los indicios y evidencias que tenemos nos indican que en los próximos años seguiremos recibiendo inmigración al igual que en años anteriores, así como en contextos tan perjudiciales para la inmigración como la gran crisis económica de 2008 y la grave crisis sanitaria de 2020-21.*

*Por tanto, la inmigración no es un fenómeno social temporal o coyuntural, sino que es una realidad estructural de nuestros pueblos y ciudades.*

*La inmigración de personas originarias de diferentes partes del mundo ha incrementado una característica que ya tenía nuestra sociedad: la diversidad. Hoy en día, nuestra sociedad tiene una diversidad cultural mayor que la de principios del siglo XXI. Por ello, son los pueblos y ciudades los que tienen la llave para gestionar toda esta diversidad, con y para su ciudadanía, por su capacidad para proyectar estrategias de innovación y buena gobernanza locales.*

*Creemos que gracias a la diversificación y a la diversidad se fortalecen más las identidades locales y se pueden conocer y aprender otras formas de sentir y hacer. El acercamiento a otras culturas fomenta las concepciones del mundo, nos enriquece tanto personal como socialmente y permite generar otras ideas. Al mismo tiempo, esta diversidad también puede hacer hincapié en*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

horrek desberdintasunak nabarmendu ere egin ditzake eta horren ondorioz jarrera xenofoboak eta bizikidetzaren arloko erronkak areagotzen ditu. Horretarako, bada, beharrezkoa da kultur aniztasun hau kudeatuko duten politika publikoak antolatzea.


Ildo honetatik, 2022ko irailaren 29an Udal Plenoan onartu berri dugun *Ongi etorri Ordiziara! Ordiziako Kultur Aniztasunerako eta Bizikidetzarako I. Plana 2022-2024*ean ikus daitekeen moduan, Ordiziako Udalak, alderdi guztiek bat eginik, dugun aniztasuna modu inklusiboan kudeatzeko konpromisoari irrimo eutsiko dio, honako hau adieraziz:

1. Ordiziako herria, harrera herria izateko estrategiak bultzatuko dituela, iristen dena edozein izanik eta edozein herrialdetatik etorria dela ere.
2. Ordiziako Udalak jarrera positiboarekin jaso nahi duela aniztasuna, bere ustez aniztasuna ezinbestekoa delako gizarte inklusibo bat lortzeko, kulturen arteko elkarrizketaren garrantziaz jabetuta aukera berdintasunean oinarrituta egongo delako eta herritar guztien eskubide eta betebeharrak erabat betetzearekin konprometituko delako.
3. Ordiziako Udalak, aurreiritziei aurre eginez, jatorri ezberdinetako pertsonak elkar ezagutzeko eta aitortzeko bide emango duten espazioak sortuko ditu, parte hartze parekidea sustatuko du, diskriminazio oro desagerrarazteko lan egingo du, bazterkeria estrategien aurka borroka egingo du eta tolerantzia, errespetua eta empatia sustatuko ditu. Jatorri eta kultur aniztasuna eta oro har aniztasun guztiak oinarritzeko elementu baitira gaur egungo

*las desigualdades, lo que aumenta las actitudes xenófobas y los retos en materia de convivencia. Para ello es necesario articular políticas públicas que gestionen esta diversidad cultural.*

*En este sentido, el Pleno Municipal del 29 de septiembre de 2022 acaba de aprobar Ongi etorri Ordiziara! el I Plan para la Diversidad Cultural y la Convivencia de Ordizia 2022-2024. Tal y como se puede observar en el Plan, el Ayuntamiento de Ordizia, de acuerdo con todas las partes, mantendrá su compromiso de gestionar de forma inclusiva la diversidad existente, manifestando lo siguiente:*

1. *Que impulsará estrategias para que el pueblo de Ordizia sea un pueblo de acogida, sea quien sea y venga de donde venga la persona que llega.*
2. *Que el Ayuntamiento de Ordizia quiere recibir la diversidad con una actitud positiva, ya que considera que la diversidad es imprescindible para lograr una sociedad inclusiva, consciente de la importancia del diálogo intercultural estará basada en la igualdad de oportunidades y se comprometerá con el pleno cumplimiento de los derechos y deberes de toda la ciudadanía.*
3. *El Ayuntamiento de Ordizia, haciendo frente a los prejuicios, creará espacios que permitan el conocimiento y reconocimiento mutuo de personas de diferentes procedencias, fomentará la participación paritaria, trabajará para erradicar toda discriminación, luchará contra las estrategias de exclusión y fomentará la tolerancia, el respeto y la empatía. El origen y la diversidad cultural y la diversidad en general son elementos básicos para el desarrollo de la sociedad actual.*



- gizartea garatzeko.
4. Ordiziako Udalak aitortzen du aniztasuna kohesio elementu bat dela, eta era berean, konpromisoa hartzen du kultura desberdinen arteko kohesioa bermatzeko beharrezko elementuak jartzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango du gure ingurunean dauden kulturei balioa ematea; baita ere, euskal kulturari eta euskarari ere garrantzia ematea eta kohesio elementu gisa balioko duela bermatzea.
  5. Ordiziako Udalak hitzematen du kontuan hartuko duela kultur eta jatorri aniztasuna gizarteko esparru guztietan. Halaber, hitzematen du kontuan hartuko duela kultur aniztasuna esparru guztietako plan, programa eta proiektuetan, eta beharrezko mekanismoak jarriko dituela aniztasun hori ezagutzeko, onartzeko eta babesteko. Mekanismo horiek herritarren parte hartzea eta aukera berdintasuna izango dituzte oinarri.
4. *El Ayuntamiento de Ordizia reconoce la diversidad como elemento de cohesión y se compromete a poner los elementos necesarios para garantizar la cohesión entre las diferentes culturas. Para ello, será imprescindible poner en valor las culturas existentes en nuestro entorno, así como dar importancia a la cultura vasca y al euskera y garantizar que sirva como elemento de cohesión.*
  5. *El Ayuntamiento de Ordizia se compromete a tener en cuenta la diversidad cultural y de origen en todos los ámbitos de la sociedad. Asimismo, se compromete a tener en cuenta la diversidad cultural en los planes, programas y proyectos de todos los ámbitos y a establecer los mecanismos necesarios para su conocimiento, aceptación y protección. Estos mecanismos se basarán en la participación ciudadana y la igualdad de oportunidades.*

### Eztabaida


Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Ainhoa Jimenez zinegotziak adierazpena irakurri du, eta bizikidetzako plana Ordizia onartu zela adierazten du eta adierazpen honekin gogora ekarri nahi da bertan hartutako konpromezuak. Beti kontuan hartuz Ordizia beti izan dela harrera herria eta beti izango dela. Aniztasuna modu positiboan ulertzen dugula, eta kudeaketarako aniztasuna beti izan behar dugula presente argi dugu. Eta Udaletik baliabidek eskaintzen jarraitu behar dugula proiektu horiek gauzatzeko.

### Debate

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*

*La concejala, Ainhoa Jiménez, da lectura a la declaración y señala que el plan de convivencia fue aprobado en Ordizia y con esta declaración se quiere recordar los compromisos adquiridos en el mismo. Siempre teniendo en cuenta que Ordizia ha sido y será un pueblo de acogida. Tenemos claro que entendemos la diversidad de forma positiva y que la diversidad de gestión siempre debe estar presente. Desde el Ayuntamiento tenemos que seguir ofreciendo recursos para llevar a cabo estos proyectos.*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

Mila Sukia zinegotziak adierazten du nahiz eta Ordizian aniztasunaren aldeko pausuak eman kontuan izan behar dela herrian segregazio arazo larriak daudela. Garrantzitsua izango litzateke Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jarri eta Hezkuntza Sailarekin bat eginik proiektu bat garatzea. Ea modu honetan Ordiziako herrian dauden segregazio arazoei aurre egiteko gai garen.

*La concejala Mila Sukia señala que aunque en Ordizia se den pasos a favor de la diversidad hay que tener en cuenta que en el pueblo hay graves problemas de segregación. Sería importante ponerse en contacto con el Gobierno Vasco y desarrollar un proyecto en sintonía con el Departamento de Educación. A ver si de esta manera somos capaces de hacer frente a los problemas de segregación que existen en la localidad de Ordizia.*

### Bozketa:

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak:** 13 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 4, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 1, PSE-EE (PSOE) 1)

**Aurkakoak:** 0

**Abstentzioak:** 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- TURKIAN eta SIRIAN gertatutako lurrikarak kaltetutako herriei babesa emateko EAJ/PNVk aurkeztutako adierazpena.**


**TURKIAN ETA SIRIAN IZANDAKO LURRIKARAK KALTETUTAKO HERRIEI LAGUNTZA EMATEKO ADIERAZPENA**

Joan den otsailaren 6an, Turkiak eta Siriak 7,8 eta 7,5 magnitudeko bi lurrikara jasan zituzten Ritche eskalan, epizentroa Gaziantep hirian zutela. Hiri horren metropoli-eremuak 2 milioi biztanle baino gehiago ditu. Turkiako hegoaldean kalte handiak izan dira, besteak beste, *Diyarbakır, Adıyaman, Osmaniye, Malatya eta Adana hirietan.*

**6.- Declaración presentada por EAJ/PNV de apoyo a las poblaciones afectadas por el terremoto acaecido en TUQUIA Y SIRIA.**

**DECLARACIÓN EN APOYO A TODAS LAS POBLACIONES AFECTADAS POR EL TERREMOTO ACAECIDO EN TURQUÍA Y SIRIA**

*El pasado 6 de febrero Turquía y Siria sufrieron dos sismos de magnitud 7, 8 y 7,5 en la escala Ritcher con epicentro en la ciudad de Gaziantep, cuya área metropolitana tiene más de 2 millones de habitantes. Toda la zona del sur de Turquía se ha visto muy afectada, con graves daños en ciudades como Diyarbakır, Adıyaman, Osmaniye, Malatya*



y Adana.

Siriaren kasuan, Aleppo, Latakia eta Hama bezalako hiriak dira lurrikararen eragin nagusietako batzuk.

*En el caso de Siria, ciudades como Aleppo, Latakia y Hama son algunas de las principales afectadas por el seísmo.*

Lurrikarak milaka biktima eta zauritu utzi ditu, pertsona asko etxerik gabe utzi ditu eta hirietako azpiegiturak kolapsatu ditu, egoera bereziki kritikoa sortuz, neguko tenperatura baxueki larriagotzen ari dena.

*El terremoto ha dejado miles de víctimas y heridos, a muchas personas sin hogar y colapsado las infraestructuras de las ciudades, originando una situación especialmente crítica que se está viendo agravada por las bajas temperaturas del invierno.*

Europar Batasunak erantzun egin dio Turkiako agintariek egindako nazioarteko laguntza-deialdiari, eta Babes Zibileko Europako Mekanismoa aktibatu du, estatu kideen nazioarteko laguntza koordinatzeko.

*La Unión Europea ha respondido al llamamiento de ayuda internacional realizado por las autoridades turcas activando el Mecanismo Europeo de Protección Civil para la coordinación de la ayuda internacional de los Estados miembros.*

Larrialdi-egoerari azkar eta eraginkortasunez erantzun ahal izateko, euskal erakunde publikoek bat egiten dugu nazioarteko ahaleginekin herrialde pobretuetako larrialdi-kasuetan, funts globaletara ekarpenak eginez edo nazioarteko deiak eginez. Gure ustez, laguntza modu bateratuan eta koordinatuan eman behar da, nazioarteko eragileekin eta erakunde humanitarioekin batera.


*Con el objetivo de posibilitar una respuesta rápida y eficaz a la situación de emergencia, las instituciones públicas vascas nos sumamos a los esfuerzos internacionales en casos de emergencia en países empobrecidos mediante aportaciones a fondos globales o llamamientos internacionales. Creemos que la ayuda debe hacerse de manera conjunta y coordinada junto a agentes internacionales y organizaciones humanitarias.*

Era berean, gure laguntza erakunde humanitarioen bitartez bideratzen dugu, eta erakunde horiek lan egiten dute krisiak eragindako biztanleen beharrei erantzunez. Horretarako, urtero deialdiak egiten ditugu tokiko erakundeekin batera Hegoaldeko herrialdeetan ekintza humanitarioko ekimenetan lan egiten duten euskal erakundeentzat.

*Asimismo, canalizamos nuestro apoyo a través de organizaciones humanitarias que trabajan respondiendo a las necesidades de las poblaciones afectadas por la crisis. Para ello, realizamos convocatorias anuales dirigidas a entidades vascas que trabajan junto a organizaciones locales en iniciativas de acción humanitaria en países del Sur.*

Herritarren elkartasun-keinuak bideratze aldera, informazio eguneratua eskaintzen dizugu kaltetutako eremuetan lanean ari

*Con el objetivo de canalizar los gestos solidarios de la ciudadanía, ponemos a su disposición información actualizada sobre las organizaciones vascas que están*



## Ordiziako Udala

2023IOSB0002

diren euskal erakundeei buruz, eta biztanleei gonbidatzen diegu herriei laguntza ematera, erakunde horiei ekarpenak eginez; izan ere, inguruan presentzia dute eta jarduteko prest daude.

*trabajando en las zonas afectas, e invitamos a la población a que apoyen a las poblaciones mediante aportaciones a estas organizaciones; ya que tienen presencia en la zona y están preparadas para actuar.*

Gogorarazi nahi dugu, gainera, garrantzitsua dela interesa epe luzera mantentzea, kaltetutako pertsonen errekuperazio-bide luzea izango baitute aurretik. Herritarrak gonbidatzen ditugu, astebete, hilabete edo urte batzuk barru, kaltetutako eremuen egoeran interesa izaten jarrai dezagun, eta gogoan izan ditzagun, halaber, hainbeste arreta jasotzen ez duten beste krisi batzuk, munduan milioika pertsonari eragiten dietenak.

*Queremos recordar, además, que es importante seguir manteniendo el interés a largo plazo, ya que las personas afectadas tendrán un largo camino de recuperación por delante. Invitamos a la ciudadanía a que continuemos interesándonos en la situación de las zonas afectadas dentro de una semana, meses o años, y que nos acordemos también, de otras crisis que no reciben tanta atención, pero que continúan afectando a millones de personas en el mundo.*

Tokiko gobernuen elkartasuna beti dago horrelako hondamendietan. Turkiar eta siriarrak eta lurrikarak kaltetu dituen guztiei gure elkartasuna eta maitasuna helarazten diegu.

*La solidaridad de los Gobiernos Locales siempre está presente en este tipo de catástrofes. Trasladamos toda nuestra solidaridad y afecto a la población turca y siria, y a cuantas personas se hayan visto afectadas por el seísmo.*

### Eztabaida

### Debate

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

*Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:*


Agurtzane Antoñana zinegotziak adierazpena irakurtzen du.

*La concejala Agurtzane Antoñana procede a dar lectura a la declaración.*

